

HONDARTZA KIROLDEGIAREN BARNE ARAUDIA

Helburua

1. Artikulua.

Araudi honen helburua Hondartza Kiroldegiaren erabilera eta funtzionamendua eta erabiltzaileen ardua, betebeharrak, eta eskubideak arautzea da.
Hondartza Kiroldegiak kiroldegia, kanpoko pistak eta eranskina, eta Jostaldi pilotalekua ditu bere baitan.

I TITULUA

Xedapen orokorrak

2. Artikulua

Hondartza Kiroldegiak interes orokorreko zerbitzu publikoa eskaintzen du, beraz bertarako sarbidea arautua da. Ondorioz, beronen erabiltzaileak pertsona fisiko nahiz juridikoak izan daitezke, araudi honetan ezarritakoari atxikirik.

Hala ere kirol gunearen edukierak, egoeraren arabera ezartzen diren edukiera mugek, dagozkien tarifak ordaintzeak eta ikusleak dituzten jarduera eta ekitaldietan ezar daitezkeen araudi zehatzak baldintzatuko dute bertarako sarbidea.

3. Artikulua

1.Hondartza Kiroldegia mota eta aukera guztietako jarduera fisiko eta kirola burutzeko dago.

2.Kirol jarduerak ez ezik dauden guneetan azpiegiturekin bat datozen eta kirol alorrekoak ez diren jarduerak ere buru daitezke baldin eta ezartzen diren baldintza zehatzak betetzen badituzte.

4. Artikulua

Hondartza Kiroldegiaren administrazio eta kudeaketa Kirolzer SLren esku dago, instalazioen kudeaketa osoa esleitzeko lehiaketa publikoan hala egokitu baitzen, baina Hondarribia Lantzen SAK aztertuko du kudeaketa hori eta zerbitzu egokia izan dadin behatuko du.

II. TITULUA

Araubide Orokorra

5. Artikulua

Hondarribia Lantzen SAK ezarriko ditu Hondartza Kiroldegia irekitzeko eta jarduteko egutegi, ordutegi eta erabilerak.

Egutegi horrek zehaztuko du noiz ez duen Hondartza Kiroldegiak kirol zerbitzurik eskainiko eta zein izango diren dagokion lan egutegiko jai egunak.

6. Artikulua

Hondarribia Lantzen SAK eskubidea du zorretan dauden pertsona fisiko edo juridikoei kiroldegia erabili edo bertan ekintzak sustatu edo antolatzea ukatzeko horiek kirol izaerakoak izan ala ez izan, beraz erabili nahi dutenek Udalarekiko zerga betekizunak egunean izango dituzte edozein motakoak direlarik ere.

Hondarribiko Udalak une oro hori bete den egiaztatu ahal izango du, eta ondorioz erabiltzaileak ordaindu gabekorik duela ikusiz gero emandako baimena bertan behera utzi ahal izango du.

7. Artikulua

Hondartza kiroldegia erabiltzen ari den epean eguneko edo abonatu bitarteko ordainketa egin duen erabiltzaileak dagozkion tiketak izan beharko ditu berekin.

Eguneko ordainketa egin duen erabiltzaileak kiroldegitik atera eta berriz ordaindu gabe sartzeko aukera izango du. Hau da, sarrerak egun osoko balioa izango du.

8. Artikulua

Araudi honetan aurreikusitakoari eta tarifei jarraituz egindako eguneko sarreren eta abonatuaren kuoten ordainketa ez da itzuliko.

9. Artikulua

1.- Nork bere abonatu txartela izango du eta ezin izango dio beste bati utzi, beraz hala egingo balitz txartela kendu eta dagokion isuna jarriko litzaioke.

2. Zenbait eskubide ematen dituen zedula pertsonala denez beraz manipulatzeak araudi honetan aurreikusitako isunak ekarriko ditu, horren ondorioz izan litezkeen erantzukizun penal eta administratiboez gain.

3. Hondarribia Lantzen SAK egokia deritzon erabiltzen ari diren abonatu txartelak baliogabetzeko eskumena du, horien ordezkari ez beste batzuk banatuko dituelarik ezartzen den epean.

10. Artikulua

1.Instalazioari dagokion aforoa izanez gero gunera erabiltzaile gehiago sartzea eragotziko da.

2.Egoera dela eta instalazioetan sartzeko erabiltzaile muga ezarri behar denean abonatuak lehentasuna izango dute.

Aholkaturiko aforoak:

Barrengo igerilekua: Umeentzako ontziak: 35
Helduentzako ontziak: 100

- Gorputz tratamenduak: Saunak 25
Lurrun bainuak: 13
Hidromasajeak: 8

- Kirol anitzetarako pistak: Kantxak: 60
Harmailek: 1.000

- Gimnasioek 100

- Fitness-ak: 75
- Squash-ak: 4
- Eskalada murrak: 6
- Txirrinda aretoak: 26
- Mahai-tenisak: 4
- Tenis eta padel pistak: 32
- Kanpoko zelaiek: 150
- Jostaldi pilotalekuak: 609 + 200.

11. Artikulua

Hondartza Kiroldegia erabiltzeko baimen edo emakida besterenezina da, beraz bere titularrek ezin izango dituzte emakidaz dituzten erabilerak besteri laga edo beste batzuegatik trukatu, non eta Hondarribia Lantzen SA ados ez badago.

12. Artikulua

Hondarribia Kiroldegia erabiltzeko baimena Hondarribia Lantzen SAK dituen beharren baitan dago, edo bestela Hondarribiko Udalaren beharren baitan.

13. Artikulua

1.Hondarribia Lantzen SAK emakida bidezko erabilerak aldatu edo ezeztatzeko eskubidea du, baita udal interesengatik zerbitzua aldi batez eteteko, interesatuei ez zaizkielarik gerta litezkeen kalteengatik erantzun behar, ordaindutako tarifa eta fidantzetan izan ezik.

2.Emakida bidezko erabilera bertan uzteak eragina izango du gutxienez udal erregistro orokorrean uko egiteko eskaera aurkeztu ondorengo bosgarren egunetik aurrera. Ez dira baimendutako erabilerak zati batean bertan behera uztea onartuko non eta ez den jarduera eteten edo eskatzen duen erabiltzailearen kirol garaia bukatzen.

14. Artikulua

Salbuespen gisa Hondartza Kiroldegia ohiko zabaltzeko egutegi edo ordutegiz kanpo erabiltzea onartuko da.

15. Artikulua

Hondartza Kiroldegian egin beharreko jardueretan ekipamenduak muntatu eta desmuntatu beharra dagoenean, kirol jardueraren ohiko garapena eragotziz gero lan horiei eskainitako denbora neurtu egingo da.

Muntatu eta desmuntatzeko lanak instalazioaren erabiltzailearen baitan izango dira eta instalazioko langile arduradunaren begiradapean. Gainera erabiltzailearen kontura joango dira zaintza, garbiketa, argindar kontsumo eta loturak, eta ekipamenduak muntatu eta desmuntatzeko lanek sorturiko gainontzeko zerbitzuak edo erabiltzeko egoera bereziak.

16. Artikulua

Salbuespen gisa kirol jarduera zehatzetarako edo Hondarribirako interesekoak diren gainontzeko jardueretarako kargurik gabe erabiltzeko baimena eman ahal izango da.

17. Artikulua

Salbuespenak salbuespen Hondartza Kiroldegiaren emakidan ez dago kirol materialaren hornidura eta erabilera, beraz erabiltzaileen baitan daude eta kasuan kasuko kirol modalitateari ezarritako arau baldintzetara egokitu beharko dira.

18. Artikulua

Eskaeraren baitan Udalaren beharren eta aurkezten diren eskaeren helburuen arabera ezarritako erabiltzeko lehentasun hurrenkerari begira erabiliko da Hondartza Kiroldegia.

19. Artikulua

Hondarribia Lantzen SAK ez du Hondartza Kiroldegian galdu eta hondatzen diren gauzetan erantzukizunik izango, non eta ez diren ziurtasun kutxetan edo Kiroldegiko langileek berek zuzenean zaindutako lekuren batean ezarriak.

Hondartza Kiroldegian jasotako gauzak hamabost egunez instalazioko bulegoetan izango dira, eta ondoren gauza aurkituen Udal Gordailura eramango dira.

20. Artikulua

1.- Erabilera murriztuak eta debekuak:

- a) Egurrezkoa edo sintetikoa den zorua duten kirol guneetara kirol jantzi eta oinetakoekin sartu beharko da. Pasabideetan eta ikusleentzako guneetan bakarrik egon ahal izango da kaleko jantzi eta oinetakoekin.

- b) Galarazia dago Hondartza Kiroldegian txirringa, patin, monopatinekin etab. sartzea, une jakin batzuetan programaturiko jarduerak garatzeko baimen zehatza duten kirol guneetan izan ezik.
- C) Galarazia dago Hondartza Kiroldegia barrutian erretzea. Ezarriko zaion araua abenduaren 26ko 28/2005 Legea da.
- d) Galarazia dago Hondartza Kiroldegi barrutian alkoholdun edariak edatea, espresuki baimendutako guneetan izan ezik.
- E) Galarazia dago barrutian animaliak sartzea, ekainaren 29ko 10/2007 Legeari jarraituz baimendutako kasuetan izan ezik, hau da adimen-urritasuna duten pertsonen laguntzeko txakurren kasuan izan ezik.
- F) Hondartza Kiroldegiaren erabiltzaileen osasun, erosotasun eta gozamenaren hobe beharrez eta aisia gisa duen kirol erabilera sustatzeko eta kiroldegiko guneak mantentzeko honako arauak bete beharra dago:

Estalitako igerilekua

- Osasun neurri gisa ezin izango da igerilekuan gaixotasun infektagarri nahiz kutsagarriarik duenik sartu.
- Zuhurtzia neurri gisa ezin izango dira 6 urtetik behekoak bere kaxa sartu hauen ardura hartzen duten helduekin ez bada.
- Une oro igerilekuko langileen eta sorosleen aginduak beteko dira.
- Igerilekuari dagokion eremuan ezin izango dira igeriketarenak propio ez diren beste tresnak sartu.
- Uretan sartzeko derrigorrezkoa izango da honako hauek jantzea:
 - a. Bainujantzia.
 - b. Bainu-txanoa.
- Uretan lehenengoz sartu aurretik dutxatu egin behar da.
- Ezin da uretan igeriketarako kirol jantzia ez den beste gauza edo jantzirik bota edo sartu.
- Espresuki galarazia dago aldageletan, komunetan, igerileku-hondartzetan eta abarretan kristalezkoa edo antzekoak diren gauzak sartzea, botilak, potoak, ispiluak, eta abar alegia, puskatuz gero erabiltzaileei zauriak eragin baitiezazkiekete.
- Galarazia dago urpeko betaurrekoak, aletak, pneumatikoak eta abar erabiltzea, antolatutako jardueretan izan ezik.
- Bizikidetzatza eta ziurtasun neurriengatik galaraziak daude igerileku-hondartza eremuko lasterketak, besteak asaldatzen dituzten jokoak eta batez ere arriskutsuak direnak.
- Galarazia izango da igerilekura modu bortitzean jaurtitzea, arriskutsua izan bailiteke uretan dauden bainularientzat.
- Galarazia dago 16 urtetik beherakoak hidromasajeetan sartzea.
- Egoera bereziren batek hala eskatzen duenean izan ezik oro har estalitako igerilekua kaleka erabiliko da eta igerilekuan jendaurrean azalduko den ordutegian. Hartara ikastaroetarako, kirol entrenamenduetarako, igeriketarako, erabiltzaileak bainatzeko etab. kaleak erabiliko dira, horren bidez erabiltzaile mota bakoitzak kale eta ordutegi jakin batzuk erabiliko dituelarik igerilekua hobeto aprobetxatzeko.

Kirol anitzetarako pistak (estalia eta estali gabea).

- Bizikidetzatza arrazoiengatik galaraziak dira traba egiten duten jokoak eta arriskutsuak direnak.
- Ezin izango dira 6 urtetik behekoak bere kaxa sartu hauen ardura hartzen duten helduekin ez bada.
- Kirol jantzi eta oinetakoak erabili beharko dira.
- Lehiaketa egun eta orduetan pista guztiak itxiak izango dituzte parte lehiatzen ez diren erabiltzaileek, modu egokian adierazitako ordutegietan.
- Ezin izango da pistetan ez dagokien kirol egiteko instalazioko arduradunen esanbidezko adostasunik gabe.
- Ezin izango da kirol zoladura kaltetzen duen kirol tresnarik erabili.
- Kirolarien laguntzaileek ez dute zertan kirol jantzia eraman, baina ezin izango dute kaleko oinetakorik erabili.

Futbol zelaiak

- Ezin izango dira 14 urtetik beheitikoak bere kaxa sartu hauen ardura hartzen duten helduekin ez bada.
- Bizikidetzaz arrazoiengatik galaraziak dira traba egiten duten jokoak eta arriskutsuak direnak.
- Jokalekua egoki mantentzeko arau zehatzak errespetatuko dira.
- Belardi sintetikoan futboleko aritzeko oinetako egokiak erabiliko dira.

Tenis, padel eta squash pistak:

- Bizikidetzaz arrazoiengatik galaraziak dira traba egiten duten jokoak eta arriskutsuak direnak.
- Ezin izango dira 6 urtetik beheitikoak bere kaxa sartu hauen ardura hartzen duten helduekin ez bada.
- Kirol jantzi eta oinetakoak erabili beharko dira.
- Ezin izango da pistetan ez dagokien kirol egiteko instalazioko arduradunen esanbidezko adostasunik gabe.
- Ezin izango da kirol zoladura kaltetzen duen kirol tresnarik erabili.
- Kirolarien laguntzaileek ez dute zertan kirol jantzia eraman, baina ezin izango dute kaleko oinetakorik erabili.

Atletismo pista:

- Bertan sartzeko gutxieneko ekipoa, jarduera bakoitzerako egokia den kirol jantzi eta oinetakoa da
- Ezin izango dira 6 urtetik beheitikoak bere kaxa sartu hauen ardura hartzen duten helduekin ez bada
- Arketa bukatutakoan materiala bere tokian jarri behar da.
- E aritu traba egiten duten jokotan edo arriskutsuak direnetan.
- Pistako lasterketaren eta belardi artifizialaren norabide egokia soka ezkerrean utziz lortzen da. Sartu aurretik korrika ari diren atletei ez zaiela trabarik egiten egiaztatu behar da.
- 1. eta 2. kaleak serie-lanetarako utziko dira.
 - a) 1. Kalea: 400 metrotik goitiko serieak.
 - b) 2. Kalea: 400 metrotik goitiko serieak.
- Beroketa eta errodaje luzea ondoko gunean edo 6. kalean egingo dira.
- beste kiroltako ekipoak 6. kaleatik joango dira, beti ere baimenduak badira.
- Lehiaketa egun eta orduetan pista guztiak itxiak izango dituzte parte lehiatzen ez diren erabiltzaileek, modu egokian adierazitako ordutegietan.
- Ezin izango da pistetan hauei ez dagokien kirol egiteko instalazioko arduradunen esan bidezko adostasunik gabe.
- Ezin izango da kirol zoladura kaltetzen duen kirol tresnarik erabili.

Pilotalekua

- Bizikidetzaz arrazoiengatik galaraziak dira traba egiten duten jokoak eta arriskutsuak direnak.
- Ezin izango dira 16 urtetik beheitikoak bere kaxa sartu hauen ardura hartzen duten helduekin ez bada.
- Kirol jantzi eta oinetakoak erabili beharko dira.
- Lehiaketa egun eta orduetan pista guztiak itxiak izango dituzte parte lehiatzen ez diren erabiltzaileek, modu egokian adierazitako ordutegietan.
- Ezin izango da pistetan ez dagokien kirol egiteko instalazioko arduradunen esan bidezko adostasunik gabe.
- Kirolarien laguntzaileek ez dute zertan kirol jantzia eraman, baina ezin izango dute kaleko oinetakorik erabili.

Eskalada murrua:

- Ezin izango dira 16 urtetik beheitikoak bere kaxa sartu hauen ardura hartzen duten eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten helduekin ez bada
- Galarazia dago lerro gorriak mugatzen duen gunetik goiti sokarik gabe eskalatzea.
- Eskalada murrua erabiltzen duten 16 urtetik goiti dituztenek, erabileraren ardura osoa hartuko dute eta ezaguera aski izan beharko dituzte, hauen bidez egiaztatu beharko dituztenak: federatu txartela, egindako ikastaroak...
- Ezinbestekoa da ziurtasun koltxoneta egoki jartzea. Horretarako giltza harreraren eskatu beharko da.
- Ezinbesteko materiala: "katu oinak"(eskalatzeko zapatilak), soka, arnesa eta mosketoidun zintak.
- Ibilbideak egoki mailakatu eta aztertuak daude. Ez da zilegi heldulekuak lasaitzea edo ibilbideak aldatzea zuzendaritzak baimendu ezean.
- Ez da zilegi eskalada murrua eskalatzeko ez den beste erabilera bat emateko erabiltzea.

Muskulazio aretoa, cycling aretoa eta gimnasioak:

- Ezin izango dira 16 urtetik beheitikoak bere kaxa sartu hauen ardura hartzen duten helduekin ez bada.
- Ezin izango dira jarduera garatzeko beharrezkoak ez diren edo beste erabiltzaileei traba egiten dieten gauzak sartu.
- Ziurtasun eta higie arrazoiak direla eta erabiltzaileei eskularruak erabiltzea gomendatzen zaie eta ezinbestekoa da eskuoihala erabiltzea.

Hidromasajeak, saunak eta lurrun bainua:

- Galarazia da 16 urtetik beheiti dituztenak sartzea.
- Bertan sartu aurretik dutxatu egin behar da.
- Beharrezkoa da saunan eseri edo etzateko toaila erabiltzea.
- Honako kasu hauetan ez erabiltzea gomendatzen da: Arteria-hipotentsioa, gaixotasun kardiobaskularra edo barizeak dituztenek, alkoholdun edariak hartu dituztenek edo haien egoera dela eta erabiltzeak kalte egingo dietenek.

Aldagelak:

- Espresuki galarazia dago aldageletan kristalezkoa edo antzekoak diren gauzak sartzea, botilak, potoak, ispiluak, eta abar alegia, puskatuz gero erabiltzaileei zauriak eragin baitiezazkiekete.
- Gomendagarria da norberaren txinalak, eta garbitzeko gainontzeko gauzak erabiltzea.
- Bizikidetzarrazoiengatik galaraziak dira traba egiten duten jokoak eta arriskutsuak direnak.
- Ezi izango dira kutxatilategietan honda daitezke gauzak gorde
- Behin erabili eta gero erabiltzaileak ezin izango du kutxatilategian deus utzi.
- Aldagela berezituak izan ezean janzteko eta garbitzeko 6 urtetik beheitikoak beste sexuko aldageletara sartu ahal izango dira guraso-agintea, tutoretza edo kuradoretza duen heldu batekin badoa, hartarako ezartzen diren arau zehatzei jarraituz.

III. TITULUA

Publizitate ustiapena

21. Artikulua

1.- Hondartza Kiroldegiak Hondarribia Lantzen SAK publizitate ustiapenerako aukeratutako nahierara esleitutako guneak izango ditu.

2.Udal kirol Instalazioen erabileraren emakidak ez dakar berarekin berauen publizitate aprobetxamendua.

3.Hondartza Kiroldegiko guneetan agertzen den publizitatea gaiari buruz indarrean dauden xedapenen arabera izango da eta udalaren adostasuna beharko du.

22. Artikulua

1.- kirol edo kirol arlo kanpoko ekintzak burutzeko Hondartza Kiroldegia erabiltzeko lagapenaren titularrak, Hondarribia Lantzen SAren emakidaz edo baimenez hartarako egokituak diren publizitate guneak erabili ahal izango dituzte.

2.- Hala ere adierazten zaizkien tokietan eta jarduera publikoak irauten duen denborarako bakarrik negoziatu ahal izango da publizitatea, eta aprobetxamendutik sortzen diren kostu eta operazioak haiek hartuko dituzte beren gain.

23. Artikulua

1.- Irizpide orokor gisa izango da erabiltzaileek kudeatutako publizitatea pistaren lurrean azalduko da, jokorako gunetik kanpo, horizontalki edo euskarri bertikal mugikorretan eta Hondarribia Lantzen SAK ezartzen dituen materialekin.

2.- Ez da zilegi izango pistetako jokorako gunean publizitatea jartzea, Hondarribiko udalak sustatzen duena eta noizbait Klub erabiltzaileen ligek hitzartua izan ezik.

3.- Udal kirol instalazioen erabiltzaileek ezin izango dute publizitatea pasaguneetan jarri, (atarian, pasabideetan, etab.) salbuespen gisa baimendua denean izan ezik.

IV. TITULUA

Kontsumigarrien ustiapena

24. Artikulua

Hondarribia Lantzen SAK du Udal instalazio barruko artikulu kontsumagarriak ustiatzeko eskubidea.

25. Artikulua

- Hondarribia Lantzen SAK behatuko du eta ustiapenaren esleipendunak begiratuko du Arauak betetzen diren, batez ere alkoholdun edariak eta tabakoaren kontsumo eta salmentari dagozkionak.

- Galarazia da arriskutsuak izan daitezkeen kristalezko edo beste material batez egindako ontziak sartzea instalazioetan.

V. TITULUA

Erabiltzaileen eskubide, betebehar eta ardurak

I ATALA

Eskubideak

26. Artikulua

Erabiltzaile guztiek eskubide berdinak izango dituzte Hondartza kiroldegia erabiltzerakoan:

- a. Egutegia, ordutegia eta erabiltzeko baldintzen arabera erabiltzea.
- b. Hondarribiko Udalari zerbitzuaren funtzionamendurako eskaera, iradokizun edo keak proposatzea.
- c. Udalari ezarri beharreko araudiak xedatzen duena bete dezan exijitzea
- d. Egiten diren diziplina espedienteen deskargua aurkeztea eta udal akordioen aurrean denbora eta modua errekurritzea

27. Artikulua

Hondartza Kiroldegiaren erabiltzaileek kiroldegiaren ardura duena edo bertako langileak identifika daitezzen eskatu ahal izango du une oro.

II ATALA

Betebeharrak

28. Artikulua

Hondartza Kiroldegiaren erabiltzaile guztiek prezio publikoa ordaindu beharko dute ezarritako moduan.

29. Artikulua

Hondartza Kiroldegiaren erabiltzaileak Hondarribiko Udalarekiko Ogasun ordainketak eguneratuak izan beharko ditu.

30. Artikulua

Hondartza Kiroldegiaren erabiltzaile guztiek begirunea izango diete gainontzeko erabiltzaile eta instalazioko langileei. Azken hauen argibide eta aginduak jarraitu beharko dituzte instalazioen antolamendu eta funtzionamenduari buruz, baita material eta hornidurari buruz ere.

Erabiltzaileek materiala edo giltzak eskatuz gero nahita ezkoa izango da abonatu txartela ematea edo abonatuak ez direnen kasuan nortasun agiri nazionalaren datuak ematea.

Materiala egoera txarrean itzultzen bada edo giltza galduz gero hasiera batean hutsegite arinari (ohartarazpenari) dagokion zehapen erregimenari buruzko 37. artikuluan xedatutakoa ezarriko zaio, eta berriz gertatuz gero bigarren alditik aurrera 3 euroko zehapen ekonomikoa ezarriko zaio gertatzen den bakoitzean.

III ATALA

Erabiltzaileen ardurak

32. Artikulua

1. Erabiltzaileek erabilitako instalazioak egoera onean utzi behar ditu datorrenak erabiltzeko. Bestalde, instalazioak erabiltzen direnetan bertan gertatutako kalteen ardura izango dute, baita baimendutako jardueraren ondorioz pertsona fisikoek jasandakoena eta lokal edo eraikuntzan gertatutakoena.

2.- Instalazioaren titularra joko da arduradun zuzentzat, non eta ez badu duen ordezkaria egiaztatzen, kasu horretan arduraduntzat ordezkaria joko delarik.

33. Artikulua

Adin txikikoen segurtasuna gurasoena edo haiekin doazen helduena soilik da, eta horiek izango dira adin txikikoen udal kirol instalazioen arauak bete ezean horren arduradun.

34. Artikulua

Hondartza Kiroldegiaren erabiltzaileak (pertsonak edota erakundeak) izango dira instalazio edo beste hirugarren bati eragindako kalteen arduradunak, jokaera edo erabilera desegokia izan dutela egiaztatuz gero.

35. Artikulua

Hondarribia Lantzen SAK ez du erabiltzaileek egiten duten instalazioen erabilera desegoki edo zoroarengatik berauek izan ditzaketen kalteen ardura.

VI. ATALA

Zehapen erregimena

36. artikulua

1.- Araudi honen arauak ez betetzea hutsegitezat joko da, eta Hondarribia Lantzen SAK soilik erabakiko du zenbateko larria den eta izapidetzen den Dizipina-espeditarearen bitartez ezarri behar zaion zehapena zein den.

2.- Hala ere, Instalazioko ardura duten langileek arauak betetzen ez dituzten erabiltzaileei ohartarazi edota abonatu txartela kentzeko ahalmena izango dute, hitzezko kargu hartuta jaramonik egin ezean.

3.- Txartela kenduz gero Instalazioetako ardura duten langileek Hondarribia Lantzen SAKi jakinaraziko dio, hutsegiteak behin eta berriz gertatu direnez instalazioetara sartzeko eskubidearen etenaldiari eusteko edo etenaldi hori argitzeko.

37. artikulua

Hutsegiteak zehapen hauetakoren baten bidez zigortuko dira:

- a.- Hutsegite arina: Ohartarazpena.
- b.- Hutsegite larria: Erabiltzaile edo abonatu eskubidea epe batez etetea.
- c.- Oso hutsegite larria: Erabiltzaile edo abonatu eskubidea behin betiko etetea.

Hutsegite horiek gertatzen diren inguruabar astungarri, aringarri edo salbuesleak kontuan izanda aztertuko dira.

38. artikulua

Arauk bete ezean hutsegiteagatik ezarri behar zaion zehapena jasotzeaz gain erabiltzaileek eragindako kaltea konpondu beharko dute, nahiz eta gertaerak duen erantzukizuna ere eskatuko zaion.

39. artikulua

1.- Hondarribia lantzen SAK hasi eta erabakiko du Hondartza Kiroldegia erabiltzeko arauak ez betetzeak sorturiko diziiplina espedientea. Espediente horri ofizios edo alde batek hala eskaturik emango zaio hasiera eta gertaerak zehaztu, dauden erantzukizunak ezarri eta dagozkion zehapenak ezartzeko egingo da.

2.- Instalazioetatik prebentzio gisa bidalia izan den erabiltzaileak edo txartela kendu eta gertaerengatik behin-behineko etetea kendu zaion abonatuak ezin izango da instalazioetan sartu diziiplina espedientearen ebazpen garaian.

40. artikulua

Behin espedientea irekita, inplikatuari entzunaldia emango zaio 8 eguneko epean deskargu plegua egin dezan. Erantzundakoan edo erantzuteko epea igarotakoan instrukzio egileak ebazpen proposamena egingo du eta interesatuei 8 egunetan haien defentsarako komenigarria deritzotena alega dezaten jakinarazi egingo zaie. Behin epe hori igarota ebazpen proposamena eta egindako guztia espedienteari hasiera emateko agindu zuen organoari bidaliko zaio.

41. artikulua

Ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-inpugnazioa jarri ahal izango da, jurisdikzio horretako organo eskudunaren aurrean aurkeztuta aurretik bidezkoa den kasuetan aurretik legeria orokorrean ezarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren berraztertze errekurtsua eginda.

42. artikulua

Diziiplina araudiari ezarri ahal zaizkion arauak Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen IX. tituluan "zigortzeko ahalmena" izenekoan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

V. ATALA

Ekintza bereziak garatzerakoan Hondarribia Kiroldedia erabiltzeko baldintzak

43. artikulua

Kirolzerek eta Hondarribiko Udalak gutxienez ekitaldia baino 15 egun lehenago instalazioa erabiltzeko eskaera jaso beharko dute idatziz.

44. artikulua

Eskatzaileak ondoren instalazioko gerentziarekin bilera bat egin beharko du jarduera hasi, jarduera barnean eta bukatutakoan garatu beharreko lan plana zehazteko.

45. artikulua

Hondartza Kiroldegiak eskatzailearen esku jarriko ditu giza eta teknika baliabideak eta instalazioan dauden materialak; beste edozein beharizan erabiltzailearen kontura joango da.

46. artikulua

Instalazioko ohiko ordutegitik kanpo erabilitako orduak eta jardueran sortutako gastu berezi guztiak eskatzaileak ordaindu beharko ditu.

47. artikulua

Eskatzaileak, jarduera garatu baino aste bete lehenago, Hondartza Kiroldedia kudeatzen duen enpresari 5.000€ko fidantza eman beharko dio, eta jarduera bukatutakoan instalazioa egoki dagoela ikuskatutakoan itzuli egingo zaio.

48. artikulua

Eskatzaileak aste bete lehenago estaldura aski duen erantzukizun zibileko aseguru poliza aurkeztu beharko du gerta litezkeen apurdurak estaltzeko.